


# Adamen saihets antzua



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**B**abilonia, K.a. 597. Nabukodonosor II.a erregeak bultzatuta, Judeako erresumako goi klaseko kide asko Babiloniara erbesteratu ziren. Handik hamaika urtera, K.a. 586. urtean, Nabukodonosorrek Jerusalem hartu zuen, eta orduan deportazioaren bigarren fasea, askoz masiboagoa, hasi zen; milaka judutar eraman zituzten Babiloniara.

Judutarrek Mesopotamia ezagutzen zuten lehenago ere, Abrahamen garaitik, baina erbestealdi horretan sakonago ezagutu zuten, besteak beste, sumertarren garaian taxututako erlijioa.

Sumertar mitologian *Me* izeneko figurak zeuden, gure munduaren oreka zaintzeaz arduratzen ziren jainkoen kreazioak. *Me* horiek hainbat arte, lanbide eta gaitasun barne hartzen zituzten, eta horietako bat zen *Ti*.

Hizkuntza gehienetan bezala, polise-mia ere bazen sumertarren hizkuntzan, eta *Ti* horren adibide bat da: “bizitza emateko boterea” eta “saihetsa” esan nahi du. Ez dakigu berdin esaten ziren, baina idazketa kuneiformean behintzat zeinu berdinen bidez idazten ziren biak.

Esan bezala, Babiloniako egonaldi behartuan, judutarrek Mesopotamiako erlijioa ezagutzeko aukera izan zuten eta sumertarren hainbat mito bereganatu eta judaismoan txertatu zituzten: Joben liburuak, Pentateukoak eta Salomonen Kantuen Kantak hor dute jatorria, eta



*Evaren kreazioa*, Adriaen Van Stalbem (c. 1620).

Moises pertsonaiak Akadeko Sargonen antza handia du.

Gizakiaren kreazioa ere mesopotamiarrei hartu zieten: sumertarren arabera, Enki jainkoak gizonak eta emakumeak batera sortu zituen, baldintza berdinetan, *Ti*-aren bidez. Hau da, “bizitza emateko boterearen” bidez.

Judutarrek, ordea, “saihets” moduan itzuli zuten *Ti*. Hainbat adituk zalantzan jartzen dute itzulpen akats hutsa izan ote zen. Tora oso modu zorrotzean ida-

tzita dago, irizpide zehatzei jarraiki, eta halako akatsak egitea arraroa omen zen. Gainera, Toran lehenago eta Biblian ondoren, gizonaren saihestetik sortu zen emakumea eta ez alderantziz –bigarren aukerak, biologikoki behintzat, logika handixeagoa izan arren–.

Nahita edo nahi gabe egindako itzulpen oker hori medio, Eva Adamen saihestetik sortu omen zen, eta horrek tradizio judeo-kristauaren muturreko misoginia justifikatu du mende luze. ●



INAH

## Suge buruaren koloreak pizten

2022ko irailaren 19an Mexiko Hiria astindu zuen lurrikarak ez zuen soilik hondamena ekarri. Tenochtitlan zaharrean lurperatuta zegoen suge buru kolosal bat ere agerian utzi zuen: tona bat baino gehiago pisatzen du eta 180 cm luze eta ia metro bat zabal da. Quetzalcoatl bizitzaren argiaren eta ezagutzaren jainkoaren errepresentazioa da. Buruak polikromia bizia duela ikusi zuten

adituek, baina hezetasunak eraginda, koloreak oso itzalita daude. Horregatik, INAHk (Mexikoko Antropologia eta Historia Institutu Nazionalak) hezetasuna pixkanaka kentzeko prozesu mantsoa jarri du abian, pigmentuak hondatzeko arriskua saihesteko. Prozesua datorren urtean amaituko dela aurreikusten dute eta, handik aurrera, jatorrizko koloreak berreskuratuko ditu sugeak. ●